


## Krisi ekonomikoak eta langabeziak etxebizitza EAEko gazteen lehentasunezko arazoa dela estaltzen dute

Azken hauteskundeetatik ondorioztatutako eusko jaurlaritza berriaren lehentasunak zeintzuk izan beharko liratekeen galdetu zitzairen EAEko gazteei [2012](#)ko udazkenean. 18 eta 29 urte bitarteko % 25ek jaurlaritzak etxebizitza eskuratzea erraztu beharko lukeela erantzun zuten.

Eskaera hori bera gazteen % 61ek egin zuten 2009an eta % 78k 2005ean (Euskal Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeak izan ziren garaietan, hain zuzen ere). Hau da, gazteek etxebizitza eskuratu ahal izateko gobernuak esfortzuak areagotzeko eskaera izugarri jaitsi da azken urteotan.

Zer esan nahi du horrek? Gazteak lehen baino gutxiago kezkatzen dituela etxebizitzak? Etxebizitza eskuratzea errazagoa dela orain, 2005ean baino? Datuek ez dute hori adierazten.




Gazteek EAEn etxebizitza jabetzan, hau da, erosketaren bidez, izateko jasan beharreko zamak 2005eko mailaren parean jarraitzen du 2011n. Alokairuan izateko ere, norik bere gain hartu beharreko esfortzu ekonomikoa ez da asko aldatu urteotan.

Etxebizitza eskuratzeko, bai jabetzan bai alokairuan, jasan beharreko zamari erreparatzen diogunean, gazteak hipoteka edo alokairua ordaintzeko bere soldata garbitik gorde behar duen ehunekoa hartzen dugu kontuan. EAEn ditugun zifra horiek bideragarri izateko gehieneko zorra baino gorago daude (gehienezko zor hori diru sarrera garbien % 30ean kokatzen da), beraz, ezinbestekoa da etxeko pertsona batek baino gehiagok dirua jartzea etxebizitza ordaintzeko.


Etxebizitza eskuratzeko kostua (dirutan) 2005etik 2011ra handitu ez bada ere, ezin da ahaztu oraingo baldintzak kaxkarragoak direla, finantza-erakundeek hipoteka-kredituak emateko murrizketak kontuan hartzen baditugu.

Datuok negatiboak izan arren, gazteei euren arazoei buruz galdetzen zaienean etxebizitza aipatu dutenen pisua nabarmen jaitsi da 2005etik 2012ra, ehunekoak % 54tik % 15era murriztu baitira.




Zein da murrizketa horren atzetik dagoen arrazoa? Lan merkatuari lotutako arazoek eta arazo ekonomikoek izugarriko pisua hartu dutela eta hori dela-eta beste gai guztiak beraien itzalaz estalita geratzen direla. Grafikoan ikus daitekeen bezala, lan merkatuari lotutako arazoak % 61ek aipatu zituzten 2005ean eta 2012an % 71k; bestetik, arazo ekonomikoak aipatu dituztenen ehunekoak % 13tik % 32ra handitu dira urte horietan.

Joera bera nabaritzen da EAEko arazo nagusiak zeintzuk diren galdetzen zaienean. 2012an lau gaztetatik hiruk lan merkatuari lotutakoak aipatu zituzten, eta aipamen mordoan lortu zuen bigarren arazo multzoa ekonomikoena zen, kasu horretan aipamenak nabarmen gehitu baitira 2005etik 2012ra. Etxebizitza gure erkidegoko arazo nagusia izatetik (gazteen % 71ren iritzi) zerrendako laugarren postura jaitsi da, eta 2012an EAEko gazteen % 17k soilik aipatu zuten.



Lanari eta egoera ekonomikoari dagozkien aipamenak gehitu izatea ez da harrizkoa, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 72k EAEko egoera ekonomikoa txartzat edo oso txartzat jo dutela kontuan hartuta. Pertzepzio negatibo horrek goranzko joera du eta egoera ekonomikoa txarra edo oso txarra dela uste dutenak ia hirukoiztu dira 2005etik hona, orduan % 24 izatetik oraingo % 72 izatera pasatu baitira.



Egoera ekonomikoari buruzko pertzepzio subjektiboa negatiboagoa izateaz gain, epe horretan 16 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen langabezia-tasa bikoiztu egin dela adierazten dute Eustaten datu ofizialek: 2005ean % 10,1ekoa bazen, 2012ko hirugarren hiruhilekoan % 22,6koa izatera pasatu da.

Bestalde, gazteei etxebizitzari buruz espresuki galdetuta, ikus dezakegu gurasoen etxean bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gehienek (% 85) emantzipatu nahi dutela; eta epe laburrean emantzipatzeko asmorik ez dutenen artean erdiak baino gehiagok (% 60) oztopo ekonomikoak adierazi dituzte, besteak beste, lanaren eza edo ezengonkortasuna.

Oro har, 18 eta 34 urte bitarteko gazte gehienek ustez emantzipatzeko dituzten arazo nagusienak hauexek dira: etxebizitzaren prezioa (% 83k oso garrantzitsutzat jo dute), lan egonkorraren eza (% 81), soldata kaxkarrak (% 76) eta hipoteka-kredituak eskuratzeko zailtasunak (% 73).

Beharrezkoa da, beraz, gazteen eskaera horiek aintzat hartzea eta etxebizitza-politiketan lanean jarraitzea, hala nola, alokairuko etxebizitzak eskuratu ahal izateko baldintzak erraztea, batez ere, prezioak.

Datuok [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu ditu, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariatzako [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) burututako hainbat inkestatan emandako erantzunak oinarri hartuta. Inkesta horiek 18 eta 29 urte bitarteko gazteei egin zitzaizkien. Bestalde, Gazteen Euskal Behatokiak berak 2011ko azaroan 18 eta 34 urte bitarteko 1762 gazteri egindako beste inkesta baten emaitzak ere erabili izan dira analisi honetan: [Gazteak eta etxebizitza EAEn](#) izeneko ikerketari dagozkionak, hain zuzen ere. Azkenik, behatoki honen berariazko eskaerari erantzuna emanez, Eustatek emandako 16 eta 29 urte bitartekoen langabezia-tasak ere hartu ditugu kontuan.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

